

Heri Aldizkaria

Otarantz

1999ko urtarrila 44. alea



Josu Jon
Imazekin
elkarrizketa



URRETXU-ZUMARRAGAKO ESKOLA PUBLIKOA

2 urtetik 20 urtera arteko kalitatezko eskeintza



J.M. IPARRAGIRRE B.H.I.
INSTITUTUA

Sta Barbara errepidea z/g
URRETXU - Tfnoa-Faxa 943721214

Sta. Barbara errepidea z/g - URRETXU
Tfnoa - Faxa: 943721403-943721413

⇒ HAUR HEZKUNTZA
2-6 URTE

⇒ DBH 12-16

⇒ LEHEN HEZKUNTZA
6-12 URTE

⇒ BATXILERGOAK
-Zientifiko-Teknikoa
-Osasun zientziak
-Humanitateak eta Gizarte zientziak

⇒ IRAKASKUNTZA EUSKALDUNA

⇒ HEZIKETA ZIKLOAK
-Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Anatomia Patologikoa eta Zitologia

Publikoa eta dohain. Jantoki subentzionatua eta garraioa dohain, egungo hezkuntzara egokitutako instalazioak, eskolaz-kanpoko ekintza ugari, gestio ekonomiko eta pedagogiko autonomia...





Oraingo honetan otsailerako oso aproposa den argazkia aukeratu dugu: 1950. urteko Santa Ageda egunean kantuan atera zen gazte taldea.

Zutik: Benito Pildain, Eduardo Pérez, Alejandro Castillo, Jose Mari Aldalur, Benito Pérez eta Iñaki Lizarralde.

Eserita: Ramón Mendiola, José Antia, Marcos Castillo, Josexo Aranburu eta Antonio Etxeberria.

Behelaldean eserita: Patxi Izagirre.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.
 Tel:943725775 **koordinatzailea:**Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua:**Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Azala: Bere **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318
 Tirada:2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO



SALTOKIA DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA

LA SALLE - LEGAZPI
Ikastetxea



Iñigo Loiola, 7
943 721514
ZUMARRAGA

UROLA

ELEKTRATRESNAK


943 720215 Faxa: 943 725291
S. Esnaola, 2 ZUMARRAGA



Legazpi, 5
943 726274
ZUMARRAGA



Zorionak!



Zorionak aitonak!
Egun ederra pasa ezazue zuen urtebetetze egunean, Gorka eta Begoñaren partez. (Ea txokolatada goxoa prestatzen diguzuen, ahal bada bakoitzak bana).



Alaine naiz, Alaine Noimaki izena, betaurreko borobileko neskatila... Agian gazteegia zara, baina, bertako protagonista dakarkiguzu gogora. **Zorionak Alaine!!!**



Angeli, zuen familiarantzen jaiotzea ohitura zaharra al da? Ia-ia urtarrean jaiotako gainontzeak zoriontzeko lekuri gabe utzi gaitzue. **Zorionak!!**




Eider badakigu Otamotz ez dela National Geographic baina ez daukazu horrelako muturrik jarri beharrik. Ea hemen irriteak aurpegia alaitzen dizun.



Eider elegante jarri zara lazo txuria buruan duzula. Jaunartzerako prestatzen ari al zara? **Zorionak** eta ondo pasa zure urtebetetze eguna familia guztiaren partez.




Eneritz ez gabiltza oker egungo haurrek sekulako barrabas aurpegia duzuela diogunean. Zer ari ote zara prestatzen oraingoan! Kontuz ibili beharko dugu. **Zorionak!!**



Nora hoo otsailean eta kamisetarik gabe? Herriko neskak aztoratzeko nahikoa gara gu. Eta kamisetarik kendu gabe gainera. **Zorionak Gaizka** baina gu gara herriko Playboyak.




Gaspar, pentsakor ikusten haugu, maitemindurik dagoen poeta dirudik motel! Emaztea pozik edukiko duk hire poemekin. **Zorionak!!**



Gipuzkoako futbol epaileen partez, **zorionak Gene eta Luis!** Ikusten duzuen zure oso ondo portatzen gara zuekin eta zuen urtebetetze egunaz gogoratu gara. Ea honela




Argixaora joaten garen hurrengoan ez zareten gurekin sartzen. Urolak partiduz guztiak irabazten ez baditu errua ez da beti gurea!



Inaxia bilobek lasai egoten uzten al zaituzte? Zure urtebetetze egunean txin-txo portatuko ote dira behintzat... Familia guztiaren izenean, **Zorionak!!**



Jaime, Jaime... ez haiz hi galduko, ez! Oraingoan ere korbata eta guzti elegante jantzi haiz ospakizunen batera joateko. **Zorionak** eta segi orain arte bezain parrandazale!



Hi haiz ezagutzen diagun lehen **Jebi** kaxkar motza. Ez duk hire izena merezi motel! **Zorionak** eta ea ilea luzatzen uzten duan, bestela ez bait diate kontzertuetan sartzen utziko.



Ez duzu ez bihurri aurpegi makala **Jon!** Eskerrak zure osabak deabrueria guztiak barkatu eta oraindik ere opariak egiten dizkizun. **Zorionak!!**



Jose Mari, argazkia fotomatonen atera al huen? Sekulako susto aurpegia daukak motel! Parrandan habilenean ez duk ez aurpegi berbera izango! **Zorionak!**



Gixane triste xamar zaude argazkian, neska! Lasai beti dago farre egiteko arrazoiren bat eta. Ea hurrengoan irri-farre bat eskaintzen diezun irakurleci. **Zorionak!!!**



Miguel Angel, badakigu irratigizona zarena eta ez duzula zure aurpegia ezaguterik nahi. Baina ez al zenuen ezkontzako baino argazki aproposagorik? **Zorionak!**



Mireia nahiz eta argazkia ez den oso ondo ikusten, badakigu zure irri-farrerik goxoa duzula ahoan. **Zorionak** familiako eta lagun izenean.



Pilar ez al diozu Jebiri ilea luzatzen uzten? Ondo dago suhia txukun-txukun mantendu nahia, baina koadrilatik botako dute gizaria! **Zorionak!**



Salo, paparazziek ez ezagutzeko jarri al dituzue eguzkitako betaurrekoak? Lasai neska, herriak aspalditik du eta italiar konde batekin duzun adiskidantza berri. **Zorionak!**



Sebastian bat bada zeruan, Donostia bakarra munduan... Urretxuk ez du Donostiaren antzik (Zumarraga ondoan badu ere), baina guk ere badugu gure **Sebas**. **Zorionak!!**



O Sole mio... Oraingoan ere hor goiko satelite horri builaka. Guri ez builarik egin behintzat! **Zorionak** eta Josuren parrandak umore hobez hartu.



Ay Txaro, Txaro... gazteetan ez ote zenuen Agoitzen nobiorik izango? Ez al zara inoiz ohartu zure semeen eta bertako pilotari ospetsu batekin duten antzaz? **Zorionak**




Andoni, bihurri xamarra omen zara. Argazkian behintzat gustura ikusten zaitugu pisinan jolasean. **Zorionak** zure laugarren urtebetetzean.



Aupa Uxue Urte hasierako Otamotz alaitzen duen neskatila! Etxeko guztiak lerdea dariela dituzue zure irribarraz. **Zorionak** familia guztiaren partez.



Lourdes, argi ibili zure azpian duzun horrekin. Eskerrak neska zentzuduna dirudizun eta ez dizun bere hitz goxoekin zirria sartuko. **Zorionak!!**



Hilabetero izaten diagu sateliteren bat zoriondu beharra, baina hik marka guztiak hausten dituk! Parrandatan lehena eta nesketan... **Zorionak** Josu eta segi hirean.



Hi, Joxe Mari!! Antzuolako kamioilari mairuak esan ziguk **zorionak** opartzeko hiri! (ez ote zuen mairuak argazki berri-gorik?)





Kontuz emakume honekin, oso arrisksua da eta. Noizbait Otamotzen zoriondu bazaituzte eta arduraduna nor den ez badakizu, ziurrenik bera izango zen. Hurrengo izan nahi ez baduzu, argi ibili! Otamotzeko lagunaren partez, **zorionak Aintzane** gure kolaboratzaile finari!

FAMILIARTEKO EDO LAGUNEN BAT ZORIONDU NAHI BADUZU, ARGAZKI ZAHARREN BAT BADUZU, ZURE IRITZIA OTAMOTZEN AZALDU NAHI BADUZU... DEITU 943 725775 TELEFONORA EDO LABEAGA 12 ETXEAZPIKO BUZOIAN (GOIERRI ONDOAN) UTZI EZAZU ZURE MEZUA.

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLAREN GEHIGARRIA



Gabonetako oporrak bukatu eta eskolara bueltatzeko garaia heldu zen. Baina urte berriarekin kirol berriak aukeratzeko eta lagun berriak egiteko sasoia ere heldu da. Gainera ihauteriak ere berehala ditugu eta beraz, festarako aukera izango dugu. Bitartean segi eskola kirolean tinko eta ez galdu kirol berriak praktikatzeko aukera. Beharbada orain arte jorratu gabe duzuen kirolen bat zuentzako oso aproposa dela ikusiko duzue eta.

TXIKIMOTZ

LOKOTS BILKETA

3.MAILA

IZEN ABIZENAK

MARKEL BELTZA
AITOR BIAIN
IKER AGIRRE
IÑIGO KORKOSTEGI
NEREA GABIRONDO
ANDER MENDOZA
JULEN SIMON
PERU ALUSTIZA
ANDER GORDOA
IKER ETXEBERRIA
AITOR AIZPURU
SAIOA ETXANIZ
AITZOL POZUETA
AITOR PEREZ
IKER LARRAÑAGA
HARITZ MADINA
JON PLAZAOLA
UNAI HERNANDEZ
OIER GABIRIA
JON MOREDA
JON ALBIZU
DANI DURO
JULEN ARANBERRI
MAIALEN ERRASTI
ASIER MEDIAVILLA
MIKEL IMAZ
URTZI GALDOS
ITSASO ARTOLA
MIKEL ARGANA
DANIEL GARCIA
JULEN ALBIZU
ANDONI GARCIA
ANDONI GOITIA
OSCAR HERNANDEZ
OSCAR GONZALEZ
GARBIÑE MORENO
JULENE ARANA
ELENA CALVO
IÑAKI CUESTA
KOLDO AGIRRE
ANARTZ AGIRRE
AITOR CASALES
MAIALEN JAUREGI
GORKA MANIEGA
SERGIO PLAZA
NEREA UGARTE

IKASTETXEA

IKASTOLA D
GAIN ZURI
HAZTEGI B
IKASTOLA D
IKASTOLA D
HAZTEGI A
HAZTEGI A
HAZTEGI B
HAZTEGI B
IKASTOLA D
IKASTOLA A
HAZTEGI B
IKASTOLA D
GAINZURI
IKASTOLA D
GAINZURI
IKASTOLA A
HAZTEGI B
HAZTEGI A
IKASTOLA D
HAZTEGI B
GAINZURI
LA SALLE A
HAZTEGI A
HAZTEGI B
HAZTEGI A
IKASTOLA D
IKASTOLA A
LA SALLE A
LA SALLE A
HAZTEGI B
GAINZURI
HAZTEGI A
GAINZURI
LA SALLE A
GAINZURI
HAZTEGI A
GAINZURI
IKASTOLA A
IKASTOLA D
HAZTEGI B
GAINZURI
HAZTEGI A
GAINZURI
GAINZURI
HAZTEGI B

DENBORA

38"95
39"39
39"72
39"96
40"26
40"50
40"56
40"74
40"92
41"00
41"16
41"16
41"30
41"69
41"84
42"06
42"25
42"31
42"38
42"47
42"79
42"80
43"00
43"47
43"86
43"91
44"00
44"00
44"45
44"49
44"50
44"55
44"73
44"87
45"14
45"19
45"24
45"37
45"38
45"52
45"74
46"03
46"03
46"25
46"37
46"38

SOKA TIRA 3. MAILA

A MULTZOA

DENBORA	A TALDEA	B TALDEA	DENBORA	
1'23"	IKASTOLA A IKASTOLA A LA SALLE A	LA SALLE A HAZTEGI A HAZTEGI A	47" 15" 10" 51" 33"	SAILKAPENA: 1. HAZTEGI A 2. LA SALLE A 3. IKASTOLA A

B MULTZOA

DENBORA	A TALDEA	B TALDEA	DENBORA	
23" 23" 8" 33"	IKASTOLA D IKASTOLA D GAINZURI B	GAINZURI B HAZTEGI B HAZTEGI B	1'19" 1'55"	SAILKAPENA: 1. IKASTOLA D 2. GAINZURI B 3. HAZTEGI B



XXXV. EUSKADIKO KROSS TXAPELKETA IGANDE HONETAN EZKIO-ITSASON

Lasterketak Alegi auzoan prestatu den zirkuituan izango dira eta goizeko 9:30ean hasiko dira. Ondorengoak dira maila bakoitzeko lasterketen ordutegia eta bete beharreko distantziak:

9:30	Beterano gizonetzkoak	4.900 metro
10:00	Kadete emakumezkoak	2.400 m.
10:20	Kadete gizonetzkoak	4.900 m.
10:50	Beterana emakumezkoak	2.400 m
11:10	Junior-jubenil emakumezkoak	4.400 m.
11:40	Junior-jubenil gizonetzkoak	6.900 m.
12.20	Senior-promesa emakumezkoak	6.900 m.
13.05	Senior-promesa gizonetzkoak	11.400 m.

Oharra: ETBk esaten badu antolatzaileek ordutegia aldatuko dute.

"GURE TXAPELKETAN TALDE GEHIAGOK PARTE HARTZEA NAHI GENUKE"

Hilabete honetan La Salle ikastetxean 3. DBH ikasten ari diren mutil batzuekin hitzegin dugu. 14 eta 15 urte dituzte eta futboleko jokatzen dute. Eskola kiroleko azkeneko urteetan daude eta jada ez dute kirolez aldatzeko aukera handirik. Gainera adin horrekin jendeak eskola kirolean parte hartzeari uzten dio eta lehiaketan talde gutxi egoteaz kexu dira. Euren izenak Roger, Jon, Ander, Ruben, Javier eta Joseba dira.

Zer moduz doa taldea?

Ondo jokatzen ari gara eta taldea oso ondo dabil. Orain arte bi partidu jokatu ditugu, Ikastola eta Haztegiaren aurka, eta biak irabazi ditugu. Batean 6 eta 2 eta bestean 6 eta 3. Arazo bat dugu, ordea, txapelketan bi talde hauek eta guk soilik parte hartzen dugula. Talde gehiago egotea nahi genuke.

Astean zenbaitetan entrenatzen duzue?

Astean 3 egunetan entrenatzen dugu. Normalean ordubetez aritzen gara, baina ostiralean ordu pare bat. Korrika, beroketa eta errondoak egiten ditugu. Ariketa hauen ondoren partiduak jokatzen ditugu, hau da gustukoena duguna.

Zeintzu dira zuen entrenatzaileak?

Oscar Montaña eta Mitxel Badiola dira gure entrenatzaileak. Entrenatzaile onak dira eta ondo moldatzen gara, baina batzuetan hasarratu egiten dira. Kasu handirik egiten ez diegunean batez ere.

Zein da gehien atsegin duzuen kirola?

Roger: futbola.

Jon: arrantza ere asko atsegin dut eta Agiñeta ingurura joaten naiz arrantza egitera.

Ander: futbola zelai handian.

Ruben: futbola.

Jabier: futbola.

Joseba: Atletismoa atsegin dut futbolaz gain, krosa batez ere. Igandean Ezkion Euskadiko

txapelketan parte hartu behar dut.

Zeintzu dira zuen futbol talde eta kirolari gustukoena?

Roger: Real Madrیدهkoa naiz eta Morientes dut gustukoena.

Jon: Realekoa naiz eta Loren dut gustukoena.

Ander: Realekoa naiz, baina jokalaria onena Roberto Carlos da.

Ruben: Real Madrیدهkoa naiz eta onena Mijatovic da nere ustez.

Jabier: Reala da nire talderik gustukoena eta De Pedro da gehien atsegin dudan jokalaria.

Joseba: Realekoa naiz eta Idiakez atsegin dut.



Merkealdietan erosteko ohiturarik ba al duzu?



Mila Alberdi

Bai, interesgarriak diren gauzak eros daitezke batzuetan. Egia da askotan behar ez ditugun gauzak ere erosten ditugula.



Asier Osinalde

Aurten ez dut batere erosi. Leku batzuetan benetako beharpenak izaten dira, baina beste batzuetan ez. Beharpenetan ateak noiz zabalduko egoten direnak zoraz daude.



Jose Luis Lasa

Nik ez dut ohiturarik. Uste dut ez direla ez beharpenak eta ez ezer. Beharpenetan dirua irabazten badute, gainontzeko hilabeteetan zeresanik ez.



Rosario Ormazabal

Batzuetan erosten dut. Beharpen aurreko asteetan zerbaiten premia badut itxaron egiten dut. Hala ere, ez dut behin ere erosten behar ez dudarik.



Txaro Gómez

Beharpenak ondo daude eta urte gutzian salneurri hau mantentzea ondo legoke. Hala ere, askotan behar ez ditugun gauzak erosteko ohitura ere badugu.



Iñigo eta Joseba

Beharpenak iruzur hutsa dira. Beharpen garaia heldu baino pixka bat lehen salneurria igo eta ondoren jaitsi egiten dutela uste dugu.

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

#kutxa fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lantza

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Andoni Elortza eta Edurne Iturbe, EITB trikitixa txapelketan irabazle

Andoni Elortza eta Edurne Iturbe duela hiru urte hasi ziren elkarrekin trikitixa jotzen txapelketetara aurkezteko asmoz. Lehenago Andoni anaia-rekin aurkezten zen txapelketetara eta Edurne lagun ezberdinekin aritzen zen ahizpa oraindik gazteegia baitzen. Abenduan EITBk antolatzen duen trikitixa txapelketa irabazi zuten.

Bi kanporaketa izan ziren eta bakoitzean 7 bikotek parte hartu zuten, 8 onenak finalera pasa zirelarik. Txapelketa hau 18 urtetik gorakoentzat da eta lau pieza jo behar dira: trikitixa, fandangoa, porrusalda eta arin-arina. Nahiz eta kanporaketetan eta finalean abesti berak jo daitezkeen, pieza ezberdinak jo zituzten; epaileek hau ere kontuan hartzen baitute. Txapelketa honetarako Edurnek abesti bakarra sortu du. Doinuei letra jartzeaz, berriz, Gorka Ojanguren eta Asier Iriondo bertso eskolako lagunak arduratu dira.

Andoni eta Edurneren esanetan "finalera uste baino errazago pasa ginen eta finalean ere ez zegoen espero genuen maila. Finalera pasa behar zen bikote bat, Elgoibarko Antzuola anaia, kanpoan gelditu zen. Iaz maila hobea izan zuen txapelketak".

Epaileek kantua, panderoa, argitasuna eta koordinazioa epaitzen dituzte



Andoni eta Edurnek ez dute etorkizunerako asmo berezirik

eta "gure ustez guztiz aldrebesa da epaimahaian trikitilaririk ez egotea. Askotan trikitilariek ez dute epaile izan nahi, gauzak ez baitaude oso argi eta ez dago inon idatzia zer den benetan baloratu behar dena. Baina epaimahaian trikitilariren bat egongo balitz gure lana zuzenago epaitzen jakingo luke. Eskerrak panderojole bat gutxienez bazegoen."

Egun txapelketa hau da helduentzat antolatzen den bakarra eta gazteentzat ere txapelketa bakarra dago, Zeanurikoa. "Lehenago trikiti elkarteak bere txapelketa antolatzen zuten, txapelketa ofiziala. Txapelketa honetan onenek parte hartzen zuten: Tapiak, Kepa Junkerak... eta hauek aurkezteari utzi ziotenean asko galdu zuten. Ulergarria da tri-

☎ 72 42 55
Legazpi, 14
ZUMARRAGA

ecu

☎ 43 19 72
Getaria, 18
DONOSTIA

iker

SUKALDE ERAKUSKETA

FAGOR

Udala Enparantza, z/g
Tel.: 943 / 79 00 43
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5
Tel.: 943 / 72 50 75
20700 URRETUXU

kitilari hauek ezagunak egin ondoren txapelketetara ez aurkeztea eta horrela presioa gainera kentzea. Hain onargarria ez dena zera da, txapelketei esker izena lortu duten trikitilariak gero txapelketak kritikatzeko”.

“Trikitixa ikasten ari diren gazteentzat txapelketa gehiago antolatu behar lirateke”

Edurne eta Andoni txapelketen alde agertzen dira eta garai bateko txapelketa ofizialeko giroa faltan somatzen dute. “Kepa Junkera, Tapia eta Leturia, Maixa eta Ixiar... aurkezten zirenean sekulako giroa egoten zen. Garai hartan txapelketei garrantzi handiagoa ematen zitzairen eta gehiago ere bazeuden. Gaztetxoentzako txapelketa ugari egoten ziren eta hauek jende aurrean jotzeko aukera izaten zuten. Ikasten ari direnentzat txapelketak oso garrantzitsuak dira. Ni, txapelketa nuenean gehiago saiatu eta entsaiatzen nuen, oraingo gazteek ez dute aukera hau. Kalejiretan besterik ezin dute jende aurrean jo, bide txarra dute oraingo trikitixa ikasleek aurrera egiteko. Zaletasun eta ahalmen handia dute, baina ez zaie aukera handirik eskaintzen. Gehienetan etxeontzat soilik jotzen dute eta honela zailagoa da motibazioa lortu eta erraztasuna

hartzea ere.”

Bestela trikitixa oso egoera onean dagoela uste dute: “Talde berriak sortu dira eta tabernetan ere asko entzuten da, gainera jende asko dago trikitixa ikasten. Hala ere, trikitixa munduan ez da oraindik ikerketa sakonik egin, txistuarekin egin den bezala. Beti kalean jotzeko musika tresna bezala hartu da eta ez areto itxi batean eserita entzuteko. Baina Kepa Junkera gauzak aldatzen ari da eta bere ekitaldiak antzerki aretoetan eskeintzen ditu. Gainera Europako folk zerrendetan lehenengo postuetan dago. Berari esker trikitixak aurrerapausu handia eman du. Erromerietan eta giro alai sortu behar den gainontzeko lekuetan Tapia da onena, etxean lasai entzuteko, berriz, Kepa”.

Andoni eta Edurnek egun dagoen txapelketa nagusia irabazi duten arren, ez dute etorkizunerako beste asmorik. “Niri txapelketa irabazi izanak mesede egiten dit trikitixa irakasle lanean. Ikasle eta gurasoek nigan konfidantza handia hartzen baitute (Edurne). Noiz edo noiz pentsatu izan dugu zerbait berria egitea: diska grabatu edo... baina arrakasta izatea oso zaila da eta gainera lan kontuak direla eta denbora gutxi dugu. Diska bat ateratzekotan zerbait berria edo ezberdina egin nahi nuke, Kepak egin duen bezala (Edurne). Berbena taldeena oso esplotatua dago eta azken finean talde horietan trikitixa beste musika tresnen parean dago (Andoni).”



Txapelketetatik kanpo Edurnek ahizparekin eta Andonik anaiarekin jotzen dute.



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXU

☎ 725682

722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3

☎ 72 61 13

ZUMARRAGA

GORETTI

JANTZIDENDA

MODAKO
ARROPAK

SECUNDINO ESNAOLA, 34 ☎ 943724996



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 ☎ eta faxa 943 725828

20700 URRETXU



Jose Mari Iparragirren birriloba argentinarra Urretxun

Enrique Emilio Iparragirre, Madrilera joan behar zela aprobetxatuz Goierri Bidaiakeko Agustin Eliasekin harremanetan jarri eta honek udaletxera jo zuen. Honela, otsailak 1ean argentinarra eta bere emaztea gurekin izan genituen. Urretxuko alkateak udaletxean egin zion harrera eta Enrique Emiliok herriko liburuan sinatu eta zenbait oroigarri eraman zituen opari gisa. Enriqueren esanetan "Urretxu ezagutzeko gogoia nuen eta azkenean lortu dut. Argentinan nire birraitonaren oinordekoak asko gara eta badugu bere bizitzaren zenbait berri. Halere, Argentinan taberna kantaritzat hartua da eta ez genekien hemen sinbolutzat zenutenik". Bestalde Enriquek Urretxu txikiagoa zela uste zuen eta herria oso ederra iruditu zaio.

Pello González alkateak euskal jatorriko argentinarraren eta emaztearen bisita eskertu eta etorkizunean Iparragirrenen inguruan burutu nahi diren ekintzen berri eman zuen. Hala nola, Joxe Mari Iparragirrenen biografia liburua, museoa edo Gernikako Arbola euskaldunon ereserkia izan dadin ahaleginak egitea. Enriquek Amerikan bere birraitonari buruz aurkitzen duen informazio guztia Euskal Herrian ezagutzera emateko konpromezua hartu zuen.

Badator Korrika 11!

Ohiturak agintzen duen bezala, aurten ere hemen dugu jada bi urtetik behin euskararen alde ospatzen den festa handia. Nahiz eta Korrika bera martxoan izango den, Korrika kulturari hasera otsailak 13an emango zaio. Egun horretan Euskal Herriko herri guztietan bertso afari bat ospatu nahi da eta Urretxu-Zumarragan ere hala egingo da. Horretarako tiketak salgai jarriko dira leku ezberdinetan.

Aurtengo korrikaren leloa "bat eta bat hamaika" dugu, konpromezuaren aldeko elkarlana bultzatu asmoz. Korrika egiteko asmoa baduzue, jantzi zapatilak eta ekin **Korrikari** Euskararen alde.



Santa Lutzi Feriako argazki rallyko sari banaketa

Urtarrilaren 16an banatu ziren Santa Lutzitako ferian urtero ospatzen den argazki rallyko sariak. Aurten 39 argazkizalek parte hartu dute eta oso maila altua izan da. Lehiaketa sei sailetan banatua zegoen eta parte hartzaile bakoitzak gai bakoitzeko lau argazki atera behar zituen. Sariak bilduma onenei zein gai bakoitzeko argazki onenari eskeini ziren. Bilduma onenari lehen saria Azeptiko Javier Ruiz de Larrinagak lortu zuen eta bigarren saria, berriz, Urretxuko Carlos Mediavillak. Herriko partaide onenaren saria Mikel la Iglesiarentzat izan zen.

Ostadar mendi taldeak WEB orria prestatu du

Web orri honek mendizaleak eskura izan dezakeen informazio ugari eskaintzen du: Beste batzuen artean, 150 argazki, bibliografiak, mapak eta proflez hornitutako 100 bat mendi irteeren deskribapenak; mendi aterpeen telefono eta irrati frekuentzien zenbaki gida; eguraldi-iragarpenerako WEB eta telefono zerbitzuen gida...

Informazio hau guztia eskuratu nahi duenak, hemen du helbide elektronikoa.

E-mail: Ostadar @ Geocities.com

Web gunea:

Http://.www.Geocities.com/Yosemite/trails/7802

Murgiltze ereduari buruzko mahai ingurua Gainzuri ikastetxean

Mahai inguruan Uri Ruiz Bikandi, Deustuko unibertsitateko irakasleak; Marian Bilbatua, Mondragon unibertsitateko irakasleak; Irungo Toki Alai ikastetxeko bi irakasleak; eta Hernaniko langile ikastolako beste bi irakasleak parte hartu zuten. Hasieran partaide bakoitzak bere esperientziaren berri eman zuen: Ama hizkuntza euskara duten eta erdaldun jatorria duten haurren taldekatzea, ereduaren antolaketak, elkarren artean burututako ekintzak, ondorioak... Ondoren galdera erantzunen eta eztabaidaren garaia heldu zen eta Gainzuriko irakasleek euren kezka eta iritziak agertzeko aukera izan zuten.



Antonio Pradak bere azken liburuak aurkeztu du

“ El paso del Antiguo al Nuevo Régimen en el Alto Valle del Urola y su zona de influencia ” izenburua duen liburuaren aurkezpena Legazpi dorretxean izan zen eta bertan bi herriotako alkateek ere parte hartu zuten. Liburuak Foru Aldundiaren eta Zumarraga eta Urretxuko udalen dirulaguntza jaso du.

Pradak, bere liburuak biltzen dituen alor ezberdinen laburpena egin ondoren, ondorioen berri eman zuen. Hauetako batzuetan orain arteko usteak baztertu ditu. Pradaren esanetan “ Zumarraga eta Urretxu ez ziren Karlistak, herritarren gehiengoa apolitikoa zen eta kalte gutxien egiten zieten alde jartzen zen.” Beste ondorio garrantzitsu bat elizgizonei lotuta dago. Orain arte euskal eliza karlistatzat hartu bada ere, “Zumarraga eta Urretxuko apaizak ez ziren karlistak, Donostiara ihes egin baitzuten karlistak heldu baino lehen.”

Aurkezpena burutu ondoren, jendeak egileari galderak egiteko aukera izan zuen. Pradaren hurrengo liburuak, Zumarragako eliztar ezaugarriei buruzkoa, aurki izan-go dugu eskuartean.



Hot Dogs, Rock&Roll army 69

4 maketa kaleratu ondoren, Urretxu eta Zumarragako rock talde ezagunena den Hot Dogsek, bere lehen diska plazaratu du. Aurrera atera ez ziren zenbait proposamenen ondoren, Sacy Pins disketxeko Kike Turmixek aukera eskaini die. Bi urterako kontratua sinatu dute disketxearekin diska pare bat kaleratu asmoz. Lana binilo zein konpaktu formatoan atera dute, abesti gehienak Ingelesez dira eta Bilboko Chockablock estudioetan grabatu zuten.

Aurkezpen ofiziala Madrilera Trylobite aretoan izan zen, baina diska erosi nahi duenak Huts, Alaska, Avenida eta Navarro tabernetan aurki dezake salgai.

MASTER HEZKOR
CADENA

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



OINETAKORAK O/AGARRIAK

Labeaga, 2 URRETXU ☎943 724482



alejandro albisua
kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

J.J. Imaz: "Udaletxean egindako urteak izan dira politika arloan igaro ditudan politenak"

Josu Jon Imaz duela 36 urte jaio zen Zumarragan eta egun Donostian bizi da. Duela hiru urte ezkondu zen donostiar batekin eta orain dela hilabete inguru aita izan zen estreinakoz. Beraz, urte hasera zorionsua izan duenik ezin uka dezake. Lehendakari izateko EAJren hautagaia bera izango zela ere esan zuen

komunikabideren batek, baina azkenean industria, turismo eta merkataritza sailburua eta bozeramailea dugu gobernu berrian. Europako Legebiltzarrean lau urte egin ondoren eta bere kargura heldu berria Otamotzek berearekin hitz egin eta bere bizitzari buruzko berri izateko aukera izan du.

Zein ikasketa burutu zenituen?

4 urtetik 6 urte bitartean monjatan ikasi nuen. 6 urterekin La Sallera joan nintzen eta bertan OHO osoa egin nuen. Bertatik Urretxuko institutura joan nintzen batxillergoko lau urteak egitera. Ondoren kimika lizentziatura ikasi nuen Donostian eta kimika doktoregoa egin nuen. Institutu garaiko oso oroitzapen onak ditut. Urte aberatsak izan ziren 1976-80 tarte hartakoak. Gure herrian dena aldatzen ari zen eta institutuan aktibidade handia genuen politika mailan. Frankismoaren bukaerak eta garai berri baten hasera izateak dinamismo handiko sasoi bihurtu zuen. Ondoren Donostiara joan nintzen bost urtez pisu batetara ikastera. Ikasi egiten genuen, baina ostegunetan "Jueves social" deitzen genuen hura egitera ere ateratzen ginen Alde Zaharrera.

barruan egon nintzen lan ezberdinetan. Gaztelekua aurrera ateratzen ere ibili ginen. Beste zenbait elkarteetako jendearekin ere ekintza pilo bat antolatzen genituen Urretxu eta Zumarraga mailan. 86tik aurrera jada, EAJren barruan lanean hasi nintzen. Lehen

azaltzen zen. Baina kasu gehienetan ez dute asmatu. Nik etxekoekin eztabaidatu egiten nuen: "ezetz ama, ez dakidala ezer. Zerbait jakingo banu esango nizuke". Bruselatik abenduaren 20an etorri nintzen bueltatzeko billetea patrikan nuela, eta azkenean gelditu egin naiz.



Garai hartan piztu al zitzaizun politikarako grina?

Gaur egun zailagoa da 15 urteko gazte bat politikan sartzea. Baina orduan ez zen hain gauza arraroa. Batzuk EGAMen, besteak EGIN, Juventudes Maoistasen... askok eta askok konpromezu politiko sendoa hartu genuen. Ni EGIN hasi nintzen lanean eta ordutik hona 21 urte pasa dira, lehenengo gazte mugimenduaren barnean eta gero alderdian. Baina nire lana ez da sekula politikoa izan duela 4 urte eta erdira arte. Ordurarte enpresa munduan aritu nintzen, baina konpromezu sendoagoa hartzeko garaia heldu eta Europako Parlamentura joan nintzen.

Zer bide jarraitu duzu urte hauetan gutxietan?

86 urtera arte EGI erakundearen

aldiz instituzio publiko batetan 91an sartu nintzen: Zumarragako udaletxera joatea eskaini zidaten. Nik ogasun eta garapen ekonomiko alorrak eramaten nituen. 94 urtean Europako Parlamentura joateko eskaintza jaso nuen. Europako Legebiltzarrean Gabonak arte lanean egon naiz. Gabonetan bat-batean Ibarretzek berarekin gobernura joatea eskaini zidan. Euskal Herrian ilusio eta itxaropen momentuak bizi ditugu eta lan egiteko une aproposa da.

Espero al zenuen gobernu berrian sartzea?

Zurumurrak beti egoten dira. Azkeneko hilabeteetan egunkarietan nire izena askotan

al duzu?

Nik uste baietz. Mende askotan zehar estatu izan direnek nagusitasuna izan dute, baina orain zorionez mugak gero eta ahulagoak dira eta tokia egon beharko litzateke herri, nazio eta kultura ezberdinentzat. Euskal Herriak bere tokia izan dezake eta behar du gainera.

Aspaldi honetan Zumarragara etorri al zara? Nola ikusten duzu herria?

Gutxienez bi astetan behin Zumarragara etortzen naiz. Herria gero eta hobeto ikusten dut, zorionez baita ekonomia alorrean ere. Bestalde, Zumarraga kultura arloan nahiko makal ibili da beste herri asko-

Zer nolako esperientzia bizi izan duzu Bruselan?

Alde batetik esperientzia ederra da, beste kultura eta herri batzuk ezagutzen baitituzu. Herri ezberdinen arteko elkar bizitzeko proiektu hori gertutik ezagutzeko aukera izan dut. Gogorrena etxetik kanpo denbora luzez bizi behar izana da. European egon ondoren ondorio bat atera dut: geureari eutsi behar diogu eta posible da norberak bere herria eta sustaiak mantentzea mundu zabal batetan beste herriak eta kulturak errespetatuz.

Euskal Herriak European ordezkari bat propioa izan beharko lukeela uste

rekin alderatuz, baina azkeneko urteotan beste dinamismo bat egon dela esango nuke. Gauza txarrak ere ikusten ditut: langabezia, garraioak hobetu beharra... Gure garapen ekonomikoa bermatzeko Beasain-Durango ardatza garatu behar dugu. Gauzak aldatzen doazen arren, Izazpi inguruak beti bezala daude, garai batean ia egunero joateko aukera izaten nuen eta orain ere ahal dudana guztietan joaten naiz.

Zeintzuk dira politikan bizi izan dituzun une gozo eta mingotsenak?

Gogorrena, bai politikan eta bestela ere, 84-86 tartearen izan zen: EAJren zatiketa garaia. Une haietako tirabirak, gatazka eta momentu txarrak oso gogorrak izan ziren. Momentu onak, berriz, asko izan dira. Udaletxeko eta Europako esperientziak oso aberasgarriak izan dira.

Nolako izan da lehenengo hilabetea kargu berrian?

Eromena izan da. Urtarrilaren 7an kargua hartu nuen eta bat-batean ekipoak osatu beharra, karguaren alor bakoitzeko enpresa eta baliabide ezberdinekin harremanetan jarri... 3-4 aste nahiko txarrak pasa ditut, baina ilusioz bete. Zegamako tunelean argi izpia ikusten hasten zarenean bezala sentitzen naiz orain.

Ibarretxeren izenaz gain zurea ere aipatu zen, etorkizunean zeure burua lehendakari bezala ikusten al duzu?

Komunikabideetan gauza asko esaten dira, baina nire bizitza proiektuan ez da hori sartzen. Oso gogorra izan behar da lehendakari izatea, herri honetan egongo dira ni baino egokiagoak lan horretarako. Ni iker-tzaile bat naiz eta oraindik ere ikerkuntza zentru bateko langilea naiz, eszedentzian bada ere. Etorkizunean ere ikerkuntza lanean jarraitu nahiko nuke. Baita kultura eta euskara alorak jorratzen ere. Duela 17-18 urte Pedro Miguel Etxenik esan zuen bezala, ikerkuntza eta euskara izan behar dira herri honetako sinboluak.

Nola ikusten duzu Euskal Herriaren etorkizuna?

Europaren baitan herri aske bat bezala ikusten dut. Gure izaera errespetatuz eta beste herriei irekitasuna agertuz. Nik uste independentzia kontzeptua gero eta gehiago baztertu behar dugun kontzeptua dela. European presentzia propioa izan behar dugu, baina horrek ez du esan nahi une zehatz batean komenigarria izan ez daitekeenik estatuko edo estatutik kanpoko beste herri batzuekin loturak izatea. Nire ustez independentzia baino gehiago burujabetza da hitz egokia, une bakoitzean nahi dugun egoerari egokitu ahal izateko.

Honela definitu ditu J.Jonek ondorengo politikoak:

X.Arza: Abertzaletasunak duen liderrik argitsuenetarikoa. Niretzat maixu bat izan da.

C. Iturgaiz: Diskurtso artifizialak utzi eta herri honen itxaropen eta bakearen alde egin dezala zatiketa artifizialik eraiki gabe.

J.M. Aznar: Gizon azkarra da, duela 10 urte zatitua zegoen alderdia boterera eramain baitu. Baina diogen bezala maite bagaitu, utzi diezagula guri erabakitzen.

J. Antonio Ardantza: Lehendakari egon den 14 urtetan herri honi aportazio izugarriak egin dizkio.


J. Jose Ibarretxe: Langile azkarra eta fina. Lasterketa luzeetako korrikalaria da politikan ere. Euskadi itxaropentsu, baketsu eta aske baten lehendakaria izatea espero dut.

K. Garaikoetxea. Herri honen momentu historiko batetan izan genuen lehendakari on bat.

Arnaldo Otegi. Behar bada, E.N.A.M.en irtenbide politikoen alde pausua eman duena. Otegi eta Diez Euskal Herriko Gerry Adamsak izan daitezke.

J.J. Irizar. Gizon azkarra eta lagun ona da. Hala ere, bere momentuan iskanbila batzuk izan genituen.

A. Arbulu. Zumarragako ogasun batzordean elkarrekin egon ginen. Zumarraga maite duen zumarragatar on bat da.



CHIARA

**Etxerako lantzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
20700 URRETXU

TABERNA

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎943 720819
ZUMARRAGA

**Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura**

Labeaga 31 ☎943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU

OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎943720306
ZUMARRAGA

Alfredo Mostajo: "Aurten Porsche 911 edo Chrysler Beeper-a gidatzeko itxaropena dut"

Estatu mailako erresistentzia txapelketan parte hartzeko asmoa du

Alfredo Mostajo aski ezaguna da motorraren zale-tuen artean, baina kirol hauek komunikabideetan duten jarraipen eskasa dela eta, ez hainbeste gainontzeko herritarren artean. Legazpin jaio zen arren, egun Urretxun bizi da eta estatuko serie autoen txapelketa irabazi du Citroen ZX batekin. Txapelketa honetan pilotuek Peugeot 306, Renault Megane eta Citroen ZX autoak gidatu dituzte eta egun estatu mailako serie autoen txapelketa nagusia da. Orain arteko helburuak bete ondoren, aurten Alfredok potentzia handi-goko autoen txapelketan parte hartu nahi du.



98an lehenengoz irabazi du Mostajok sailkapen orokorra

Ibilbidea

1983: Moto lasterketetan hasi zen Ossa bat gidatuz.

1988: Istripu larria izan zuen Paben (Frantzia) eta besoko hezur guztiak hautsi zituen. Ondoren Sagardogi zenaren motorra pres-tatzen hasi zen. Yamaha ofizial batekin Superbikes txapelketan parte hartzera heldu ziren.

1993: Citroen AX txapelketan parte hartu eta lasterketa bat irabazi zuen.

1994: AX berria erosi eta bigarren egin zuen sailkapen orokorrean.

Errepide istripu bat izan zuen eta oraindik osatu gabe zegoela Citroen ZX bat erosi zuen hurrengo urterako.

1995: Lehen urtea ZX txapelketan. Zenbait postu on lortu zituen.

1996-97: Lehenengoan artean aritu zen ZX txapelketan, jada sponsor eta guzti.

1998: Serie autoen txapelketan irabazle. 3 lasterketa irabazi, bitan bigarren eta bakarrean erretiratu.

-Nolakoa da motor kirolen mundua?

Praktikatzeko diru dexente behar denez, gogor xamarra da. Hala ere, oporretara joateari, juergei... ukò eginez eta lasterketetan jasotzen den diruaz hasieran aurrera egin daiteke. Behin maila batera helduz gero diru asko dago jokoan eta jende oso ezberdina ezagutzeko aukera dago. Iaz, adibidez, denboraldia hasi baino lehen talde indartsu batean sartzea lortu nuen, baina gero emandako hitza ez zuten bete eta talderik gabe gelditu nintzen. 97an nire prestatzailea izan zena-rengana jo nuen eta honek berehala onartu ninduen bere taldean. Lehen lasterketan sponsorrik gabe parte hartu eta irabazi egin nuen. Hau dela eta, motor munduan ezaguna den Teo Martinek bere tal-

derako fitxatu ninduen eta aurrerantzean ere berarekin aritu nahiko nuke.

-Zer nolako entrenamenduak burutzen dituzu?

Kotxean oso gutxi entrenatzen dut, urtean laupabost aldiz soilik. Zorionez ez dut denbora luzea behar azkar aritzeko. 10-15 minututan zehar berotzen aritu ondoren jada tentsioa eta abiadura lortu eta lehiatzeko prest nago. Bestalde, gimnasioa ariketak eta mendi bizikleta ere egiten dut. Korrika gehiago egin beharko nuke, baina ez dut oso gustukoa. Gainera, janaria zaindu beharra dut, pisua hartzeko erraztasuna baitut.

-Zer asmo duzu aurten?

Estatu mailako erresistentzia txapelketa

aurrera atera behar dute eta bertan parte hartu nahi nuke. Nire iazko taldearen jabea da ideia aurrera ateratzeko lan egin duenetako bat eta taldean leku bat egingo didan zai nago. Lasterketa hauetan GT deritzan autoek parte hartuko lukete: Porsche 911, Chrysler Beeper, Ferrari 355, Lamborghini Diablo eta antzerako autoek. Nik seguraski Porsche 911 edo Chrysler Beeper-a gidatuko nuke. Auto hauek 600 zaldi inguru dituzte, orduko 300 kilometroko abiadura har dezakete eta 27 milioi inguruko balioa dute. Gehienak GT2 mailakoak dira, Le Mansgo 24 orduetan eta antzekoetan parte hartzen dutenen hurrengoak. Haiek GT1 mailakoak dira eta prototipoak dira. Gureak, berriz, eraldatutako serie kotxeak izango lirateke.

-Txapelketa honetan parte hartzeak guztiz asetuko al zintuen?

Nik betidanik izan dudana ametsa Le Mansgo 24 orduetan parte hartzea da. Sekula ez naiz formula auto batean aritu eta beste bide honetan behintzat aurrera egiten ari naiz. Izan ere Formula 1era iristea ia ezinezkoa da. Bertan hogeitabat pilotu aritzen dira, hauetatik hamar dirua dutelako daude eta beste hamarrak oso onak dira eta dirua ere badute. Bidean pilotu bikainak gelditu dira diru faltagatik. Orain, adibidez, Pedro Martínez de la Rosa dabil lekua egin nahian. Repsolen laguntza du eta oso ona da, baina diru gehiago behar du oraindik. Formula 1ean aritzea teknikoki pilotu batentzat goi maila da, baina bertara iristeko zailtasunak ere goi mailakoak dira. Nire helburua diren erresistentzia txapelketetan gainera, esperientzia gaztetasuna baino gehiago baloratzen da.

“Euskal Herrian ez dago motor kultura egokia eta zirkuitu bat izateak konpondu lezake”

-Ez al zaizu iruditzen motor kirolak baztertu xamarrak daudela?

Nik uste ez dagoela lasterketen kulturarik. Jende askok ez daki lasterketa batean garrantzitsua dena baloratzen. Gehiago txalotzen da azkenak doazen bi autoen arteko txokea abiadura handian eginiko aurreratzea baino. Beasaingo igoeran parte hartu nuenean, adibidez, azken igoera denbora kontuan hartu gabe egitea erabaki nuen. Jendeak espektakulutzat duena egin nuen eta askok esan zidaten hirugarren igoera hau onena izan zela. Baina zailagoa da denbora ona egitea “zirkua” egitea baino. Beste herrialdeetan ez da hau haintzat hartzen eta jendea lasterketara hurbiltzeko gauza gehiago ere prestatzen dira. Holandan, adibidez, lasterketa guneen inguruan kontzertuak, barrakak... egoten dira eta lasterketek egun osoa irauten dute. Familia asko joaten dira egunpasa.

-Noizko zirkuitua Euskal Herrian?

Pribatua ezin da egin, defizitarioa baita. Instituzioek ere dirua jarri beharko lukete edo lursaila behintzat. Baina politikariek

ez dute zirkuitu bat egin nahi bertan Euskadiko txapelketak ospa daitezen, kotxe edo motoen munduko txapelketa bat antolatu nahi lukete. Baina egun ezin da halakorik lortu, Catalunyan eta Jerezen ospatzen baitira. Nik uste zirkuitu txikiago bat egin beharko litzatekeela beste lasterketa batzuk antolatzeko, Albacete koaren antzekoa. Zirkuitu bat egiteak, lehen aipatu dudana motorraren kultura zabaltzeko balioko luke. Bestalde, motor mundua atsegin duten gazteei ez zaie kirol hau praktikatzeko aukerarik eskaintzen. Ondo dago errepidean gehiegizko abiadura zigortzea, baina ordezkioak eskaini behar dira. Zirkuituak lasterketak egiteko, gidatzen ikasteko, norberak bere kotxearekin abiadura ibiltzeko... balioko luke.

-Bukatzeo, gustuko pilotua eta kotxea?

Gustuko pilotu asko izan ditut beti, guztiengandik dago zer ikasia. Prost eta Senna aukeratuko nituzke, nahiz eta guztiz kontrakoak diren. Bata oso hotza da eta bestea odolberoia zen. Orainxe gidatu nahi dudana kotxea, berriz, Chrysler Beeper-a da. Erresistentzia txapelketan parte hartzen ari naizela esan nahiko luke.

Izenez izen

Vilariño: Saltzaile ona, hemen dagoen onena. Europako bost igoera txapelketa irabazi ditu eta hori errespetatu beharra dago, baina bere burua oso ondo saltzen ere jakin du.

Carlos Sainz: Aparta da eta beste edozein kirol egin izan balu ere onenatarikoa litzateke. Hasieran nire iazko taldean ibili zen eta denek oso ondo hitz egiten dute berataz.


Criville: Oso ona da, baina nik uste Doohanek burua berotu diola. Lasterketa hasi baino lehen irabazten dio.

Schumacher: Pilotu onena, baina pertsona bezala ez dut gehiegi atsegin. Askotan ez ditu beste pilotuak errespetatzen.

Aitor Zabaleta: Errespetu handia zor diot. Kotxe zahar batekin oso ondo dabil eta bere espezialidean oso ona da.



Mostajok lau urte eman ditu Citroen ZXa gidatzen



Unai Urretabizkaia Pilotaria

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Suhiltzailea, baina kaskoa behar zen eta...

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Neguan oso beroa eta freskoa udaran.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Kirola egitea eta lagunekin egotea dut gogokoen.

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Erregaluak beti dira onak.

✓Nor gustatuko litzazuke ezagutzea?

Sandra Bullock edo Cindy Crawford ez legoke gaizki.

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Normalean gehiago nekatzeko.

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Gustura nago nere gorputzarekin, baina bizarra kenduko balidate mesede ederra egingo lidakete.

✓Nora begiratzen diozu lehenik neska bati?

Segun nondik datorren.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Gauza askotan elkertasuna. Bestalde, zertarako bi poli-kiroldegi bat ona egin beharrean edo beste honelako beste mila gauza?

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Zelai Aristi parkea edo Osaba inguruko terraza.

✓Zumarragan ezik non biziko zinateke gustura?

Australian.

✓Zein da duzun ohiturarik okerrena?

Patxada handikoa izatea.

✓Bete gabeko amets bat?

Loteria tokatzea lanik egin gabe bizi ahal izateko.

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Entzuteko eta noizean behin dantzatzeko.

✓Kantu bat.

Metallicaren edozein.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Mus partidarako izan ezik, puntuala naiz.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Pertsonen edo laguneren arteko konfidantza.

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?

Familiarengatik eta benetako lagunengatik.

✓Gaua ala eguna?

Biek dute elkarren beharra.

✓Lo egiteko zer?

Ohea.

✓Gustuko janari bat?


Sagardotegiko menua.

✓Ura, ala...

Garagardo fresko bat.

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Australiara joan.



URRETXU

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

PUBLIZTATEA

☎ 72 57 75

OTSAILEKO AGENDA

4. osteguna

Santa Ageda bezperan, arratsaldeko 7etan, Goiargi eta Kimets-Goiargi abesbatzak, kalez-kale kantari.

5. ostirala

Hilak 14era bitartean, Itarte Etxean, Unai Buron, Unai Murua, Asier Larraza, Ibon Salaberria, Ainhoa Jauregi, Ainhoa Ruiz eta Mariluz Benitezen argazki, pintura eta eskultura erakusketa.

7. igandea

Zumarragako musika bandaren kontzertua, Legazpi ikastetxeko Areto Nagusian, eguerdiko 1ean. Antxinako Ama txistulari taldearen kalejira.

9. asteartea

Otsailak 9, 10 eta 11an, ikastaroa: Mikrouhinean sedazko zapiak egiteko astea. Urretxuko Kultur Etxean arratsaldeko 4etatik 5,30etara.

Antolatzailea: Mairi emakumeen elkarte. Prezioa: bazkideak, 500pta. Bazkide ez direnek, 800 pta.

10. asteazkena

Hilak 21era bitartean "Gure probintziko zuhaitz eta zuhaizkien herbarioa" erakusketa Juan de Lizarazu erakusgelan. Egilea: Jexux López.

11. osteguna

Ihauterietako txistu eta akordeoi kontzertua, Sekundino Esnaola Musika Eskolako ikasleek eskeinuta. Legazpi Dorretxean, arratsaldeko 7etan.

Zuhaitz eguna: zuhaitz landaketa egingo da herrian zehar.

12. ostirala

Ihauterietako Jaialdia: Suan Blai taldearekin, Kalebarren-Areizaga Enparantzan, arratsaldeko 5etatik 9etara.

13. larunbata

Goizez, Urretxuko baserrietan zehar, Lurra dantza taldeak dantzatu eta antzeztutako Adunako Azeri Dantza. Arratsaldeko 6etatik aurrera, ibilbidea Urretxuko kaleetan zehar, Iparragirre enparantzan amaituko delarik. Bertan jaialditxo bat eskeiniko dute.

14. igandea

Arratsaldeko 6:30etatik aurrera, Irrintzi dantza taldearen dantza saioak kaleetan zehar.

17. asteazkena

Dietetika eta elikadurari buruzko hitzaldia Mertxe Etxabe doktoreak eskeinia. Tokia: Urretxuko Kultur Etxea.

23. asteartea

Martxoaren 7ra bitartean, Bere-ren "Karikatura eta argazki montajeen erakusketa" Juan de Lizarazu erakusgelan.



DENDA BERRIA!

Gotzon Agirrezabal

Tel./Faxa: 943 76 72 52

ORDUTEGIA

astelehenetik zapatara:
10:00-13:00 eta 16:00-20:00.



*AIT-ITV eta autobus
geltokiak 100 metrora*

- **Ehunak eta oihalak**
- **Tapizeriak**
- **Kortinak**
- **Nordikoak**
- **Era guztietako etxerako gaiak**



**URRETXU
ZUMARRAGA**



IKASTOLA

**HAURTZAINDEGITIK UNIBERTSITATEKO
IKASKETAK BITARTEAN**



**Zuen seme-alabei
etorkizuneko atepak
irekiko dizkien
hezkuntza.**

MATRIKULA EPEA, OTSAILAK 2TIK 12RA

Pagoeta,4 20700 URRETXU

Tfnoa: 943 72 00 26 Fax: 943 72 32 94

E-mail: urretxu@ikastola.net